


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2003KO URRIA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo ziren 2003ko urrian

Urte arteko hazkunde-tasa (2003ko urria, 2002ko urriarekin alderatuta) %2,5ekoa izan zen.

2003ko urrian, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorra %0,1 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urrirako urte arteko tasa %2,5era iritsi zen, EUSTATEN datuen arabera. Urteko lehenengo hamar hilabeteko tasak, aurreko abenduaren gainean, igoera berdina izan du: % 2,5ekoa, alegia.

Urte arteko aldakuntzaren tasak, 1995-2003



(*) eskainitako gehikuntza urriko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldia (2003ko urria, 2002ko urriaren gainean), lan-eskuaren kostua % 5,8 handitu da; lehengaien kostuak, berriz, % 0,2.

Eraikuntza eta *obra zibila* azpisektoreek zeinu bereko bilakaera izan dute euren guztizko kostuetan: *eraikuntzako* kostuak % 0,1 goratu dira aurreko hilaren aldean, eta *obra zibilekoak*, oster, % 0,2, joan den irailaren aldean. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratzuz gero, ikusiko dugu, hazkundeari dagokionez, biak hazi arren, badela bien artean aldetxo bat: *eraikuntzako* kostuak % 2,4 hazi dira, eta *obra zibilekoak*, aldiz, % 2,8.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2003ko urrian, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *garbitzeko eta txukuntzeko materialak* (%2,5), *asfalto-produktuak* (%2,4), *petroliotik eratorritakoak* (%1,8) eta *plastikozko hoditeria* (%1,4) lehengaiak. Aitzitik, hileko batez besteko prezioetan murrizketak izan dituzte *karea, igeltsua eta eskaiola* (%-0,3), *olioak eta koipeak* (%-0,3), *bestelako metalezko artikulak* (%-0,2), *leherkariak eta gasak* (%-0,1) eta *beira* (%-0,1) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2003KO URRIA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	122,5	0,1	2,5	2,5	
ERAIKINAK	122,6	0,1	2,4	2,4	
OBRA ZIBILA	122,0	0,2	2,8	2,9	
LEHENGAIEN KOSTUA	114,2	0,3	0,2	0,3	
ERAIKINAK	114,5	0,2	0,0	0,0	
OBRA ZIBILA	113,6	0,4	0,8	0,9	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	135,9	0,0	5,8	5,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: 05-945 017 505. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es